

# noaua

**Agate Deunaren  
omenezko koplak  
berritzeko garaia**

**Adostasunaren aldeko  
mobilizazioa deitu du  
GuraSOsek: otsailaren  
23an Donostian**



**Otsailaren 8an Sutegin,  
“Halako batean bagoaz Benidorrera”  
antzezlanaren estreinaldia**



# Araeta


Sagardotegia

## Txotx irekiera festa ostiralean, otsailak 1

20:30 Trikitixa eta Dantzariak  
20:45 "Tolare konkistatzaile" saria  
Huntza Taldeari Julian Iantziren eskutik  
Sagardotegiko ohiko afaria  
Sebastian Lizaso -Nerea Ibarzabal bertsolariak  
Lindy Hop y Huntza Taldearen emainaldiak.

**FESTARA SARRERA+ SAGADOTEGIKO**  
**MENUA 38,50€ BEZ barne**

Berridi Bidea 22, ZUBIETA 943 362 049



## TAILANDIA

AZKEN 2  
PLAZAK!



**NOAOA**  
BIDAIK

BIDAIK  
TALDEAN

943 373 613

### IRTEERA MAIATZEAN

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus

[noaoa.eus](http://noaoa.eus)

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

*Begirada espresibo batek  
mila hitz baino  
gehiago esaten ditu*

- Asiazko Zeta sintetiko luzaketak, oso arin eta moldagarriak, pisu gabekoak.
- Ilez ile jartzeko teknika.
- jartzeko era berria, jartzerakoan lehortuz eta ez airearekin. Kalterik ez, baporeak ez bait ditu sortzen.

#### TARIFAK:

- BETILEAK LUZATU 50€
- BETILEAK BETE ( 2 ASTE) 20€
- BETILEAK BETE ( 3 ASTE) 30€
- BETILEAK BETE ( 4 ASTE) 40€

**INTZA**  
I LE A P A I N D E G I A  
ESTETIKA ZENTROA

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

## Albiste iruditan

# Errioa hazita, euri-jasen eraginez

**G**ipuzkoa goi aldetik zetorren ura irentsi ezinik ikusi genuen errioa pasa den astean. Euri-jasak direla eta alerta larangan izan ginen 24 orduz urtarrilaren 23tik 24ra. Maila horia gaindituta, maila laranjara helztear izan zen Oria urtarrilaren 24ko goizaldean. Ohiko puntuetan, ertzetatik erriberetan barneratu zen zertzobait errioa, Zubietan edo Txokoalde inguruan esaterako. Aparteko arazorik ordea ez zuen eragin.



Ohiko puntuetan, ertzetatik erriberetan barneratu zen zertzobait errioa urtarrilaren 24an.

## Laburrean

### Argazkilaritza ikastarokoen erakusketa

Einean guraso eskolak antolatu eta Ibai Arrietak zuzendutako oinarritzko argazkilaritza ikastaroko ikasleen argazkiak ikusgai izango dituzue otsailaren 1etik 10era, Sutegiko erakusketa aretoko leihoan.

### Inauteri festarako proposamenak

Gerturutzen doa martxoaren 2ko Inauteri Festa. Gaia gogoan izan; jolasak. Egitaraua osatzen gabiltza. Ekintzarik proposatu nahi baduzue, ekarpenak [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) edo 943 360 321 telefono zenbaki bidez egin ditzakezue.

### Korrika, Nafarroako Erriberatik barrena

Apirilaren 4tik 5erako goizaldean Nafarroako erriberan 21. Korrikan parte hartzeko usurbildar taldea osatzeko ekimena abiatu dute zenbait herritarrek. Interesdunek idatzi dezatela, zoro-zoragarriak.usurbil@gmail.com helbidera.

# noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) ||| [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatorak:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietia, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aroa Etxeburua Ugartemendia

Asteburuan meditazio tailer batean izan naiz, meditazioa praktikatzen hasteko jarraibide batzuk jasotzeko asmotan. Gaur egun geroz eta zabalduagoa da yoga eta meditazioaren praktika mendebaldeko herrialdeetan, Usurbilen bertan modalitate ezberdinetako yoga klaseak jaso daitezke: Hata Yoga, Aeroyoga... Badirudi guri ere gustatzen ari zaizkigula praktika honek dakartzan onurak. Yoga agian gehiago ezagutzen dugu baina, zerri esaten diogu meditazioa?

Gure bizi erritmo azkar honetan hain gaude murgilduta, nahiz eta erabaki yogako klase batera joatea, gure buruari tarte bat eskaintzeko, gure burua zaintzeko, luzaketa batzuk egiteko edota erlaxaziorako, oso zaila egiten zaigula erritmoa mantotsotzea. Yogako asana edo postura bat mantentzen ari

garen bitartean gure buruak hor jarraitzen du pentsatzen “frigorifikoa hutsa daukat eta gero erosketak egitera joan beharko dut”, “biharko lan hau bukatzeko daukat”, “goizean lankidearekin izandako gaizki-ulertua ea bihar konpontzen dugun”... Txarrean ere gure gorputza luzatzea eta amaieran agian erlaxazioaz disfrutatzea lortuko dugu. Eta ez dago batere gaizki. Baina hain dago urrun yogatik eta batez ere, meditaziotik.

Meditazioak ez du zerikusi askorik horrekin. Honek ekar ditzakeen esperientzia espiritualak alde batera uzten baditugu, oinarri oinarrian, oraindian egoteko gaitasunarekin du harreman estua. Egon, hemen eta orain. Izan, hemen eta orain. Simplea. Simplea bezain zaila.

Arreta gure arnasketara eraman. Egun osoa igarotzen dugu arnasa hartu eta botatzen baina ez gara horretaz jabetu ere egiten. Ez jara konturatzen

ematen dugun pauso bakoitzaz, mantentzen dugun gorputz posturaz, egiten dugun mokadu bakoitzaz, gure gorputzaren mugimenduez, ezta emozioez. Mugimendu guztiak mekanikoki egiten ditugu, horretan pentsatu gabe (eta bitartean beste mila gauzetan pentsatzen). Hain bizi gara azkar...

Eta, zertarako balio du ba honek? Zergatik da garrantzitsua egiten ari garenari arreta jartzea? Ba, besteak beste, errealitatearekin kontaktuan mantentzeko eta errealitatea hautemateko daukagun modua delako. Lehenaldiko gertaeretan ainguratuta edo etorkizunarekin arduratuta bizi gara egunerokoan, eta bi aukera horietatik ihes egin nahi dugunean, sare sozialetako lainora jotzen dugu. Iraganera begira, etorkizunera begira eta kanpora begira dihardugu. Meditazioak aukera ematen digu orainaldira eta barrura begira

jartzeko. Ze gu laino horretan bizi garen bitartean bizitza gertatzen ari da eta gu ez gara konturatu ere egiten, gure arnasarekin edo pausoeekin bezalaxe. Bizitza hemen eta orain bakarrik gertatzen da. Gure hautua da hau aukeratzea.

Esaldi ideal hori idatzi badut ere, ez noa inor engainatzera. Testua idazten ari naizen bitartean, ez naiz konturatu ere egin nire hatzek zapaldu duten tekla erdiez, gosaria irentsi dut pantailari begira, lau bat aldiz sartu naiz Instagramen eta nire buruan mantra bezala errepikatu zait “ahalik eta azkarren testua bukatu behar dut, gaur da bidaltzeko azken eguna”. Erraz esaten da baina ez da hain erraza egunerokotasunean praktikara eramatea. Gure inkoherentziak ditugu, baina, batzuetan bakarrik bada ere, merezi du orainaldia bizitzeko saiakera egiteak.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

## Legez kanpoko angula harrapaketen aurkako operazioa

Ertzaintzak sare sozialen bidez zabaldu duen ondoko argazkiarekin batera berri eman duenez, angulen legez kanpoko arrantzaren aurkako

polizia operazioa burutu du egunotan Aginagan. Lau espediente zabaldu, 120 gramo eta arrantzarako tresneria konfiskatu omen ditu.



120 gramo eta arrantzarako tresneria konfiskatu ditu Ertzaintzak.

## Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.



## Koplatan, Agate Deunaren bezperan

**M**akila kolpeen erritmo-  
ra koplatan abesten  
entzugo ditugu aur-  
ten ikasleak. Astelehenez ego-  
kituko den otsailaren 4ko Agate  
Deunaren bezperarako kantu  
saio ezberdinak deitu dira:

### Aginagako Eskola

■ Arratsaldeko klaseen baitan, eguraldi ona bada, Santa Agate da eskean irtengo dira Aginagako Eskolako kideak.

### Udarregi Ikastola

■ 14:45ak aldera, koplak abes-  
tera irtengo dira ikasleak. "Ga-  
bonetan egindako ibilbide bera  
jarraituko dute. LHkoek amaie-  
ra frontoian emango dute. Ber-  
tsolariak LH5 eta LH6. mailako  
ikasleak".



Agate Deuna bezperako kantaldia astelehenarekin egokitu da aurten.

### Kantu Taldea

■ 18:00 Kantu Taldeak Gure  
Pakea Elkartearen Jubilatuz  
Astearen baitan abestuko du  
Artzabalgo ekitaldi aretoan,  
herriko txistulariekin batera.

■ Ondoren, kantu taldea, txis-  
tulari taldea eta Gure Pakea  
Elkartekoak eta animatzen  
den herritar oro, kalez kale

kantuan arituko dira.

**Zubietarrak egun bat  
lehenago arituko dira kantuan**  
Zubietan, otsailaren 3an igan-  
dearekin aterako dira. Goizean  
baserriz baserri eta arratsal-  
dean Zubietako kaxkoan. An-  
tolatzailea: Zubietako Zortzi-  
tan Bertso Eskola.

## Sagarrondotik Sagardora ikastaroa otsailaren 16an hasiko da

Otsailaren 16tik irailaren 7ra  
arte luzatuko da, Alkartasuna  
Kooperatibak antolaturiko  
ikastaro praktikoa. Saioak la-  
runbat goizetan 9:00-13:00 ar-  
tean Potxoenean:

■ Otsailak 16: Sagastien ne-  
guko kimaketa eta ongarrike-  
ta. Aitor Etxeandia.


■ Martxoak 2: Fruitu arbolen  
udaberriko edo zotzeko txer-  
taketa. Josu Osa.

■ Martxoak 23: Sagastien  
neguko kimaketa, gaixota-  
sunak eta tratamenduak. Aitor  
Etxeandia.

■ Apirilak 6: garbitasuna sa-  
gardoaren kalitatearen lagun.  
Sagardoa egurrezko ontzietan.  
Sagardoaren historia bat, zer  
ikasteko? Egoitz Zapiain eta  
Jakoba Errekondo.

■ Maiatzak 18: Ilargia eta  
egutegi biodinamikoak. Xabier  
Akizu.

■ Ekainak 1: Sagastien udako  
kimaketa, gatzak eta izurri-  
teak. Aitor Etxeandia.



Josu Osa izango da ikastaroko hizlarietako bat. Argazkia: Kronika.

■ Uztailak 13: Fruitu arbolen  
udako edo begiko txertaketa.  
Josu Osa.

■ Irailak 7: Sagarraren heldu-  
tasun analisiak. Etxean sa-  
gar-  
doak egiteko hastapenak. Aitor  
Etxeandia eta Egoitz Zapiain.  
Oharra: kimaketa praktikak  
bertako sagastietan egingo dira.

■ Prezioa: ikastaro osoa 96  
euro, Alkartasuna Kooperati-  
bako bazkideek doan. Saio  
solteetarako ere izena eman  
daiteke. Horretarako, Alkarta-

suna Kooperatibarekin harre-  
manetan jarri.

### Izen ematea:

943 361 114  
alkartasuna@usurbil.com  
alkartasuna.eus

■ Antolatzailea: Alkartasuna  
Usurbilgo Baserritarren Koo-  
peratiba.

■ Laguntzaileak: Sagardoaren  
Unibertsitatea, Sagarki, Bizi  
Sagardoa, Usurbilgo Udala.

### KzGunea, otsailean arratsaldez

Hilabete honetan 16:00-  
20:00 artean irekiko dute  
KzGunea. Hemen otsaileko  
lehen ikastaroen berri:

■ Otsailak 4-15, 18:00-20:00  
"Oinarrizko Interneta. Nabi-  
gatzen eta posta elektroni-  
koak bidaltzen ikasi".

■ Otsailak 18-28, 18:00-  
20:00 "Google aplikazioak  
zure gailuetarako".

### Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37.

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

### Usurbilgo jaiak diseinatzen hasteko garaia

Jai Batzordeak Usurbilgo  
festak antolatzen hasteko le-  
hen bilera deitu du datorren  
asterako: otsailak 5 astear-  
tea, arratsaldeko 18:00etan  
Potxoenean. Festetarako pro-  
posamenen bat duen norba-  
nako nahiz eragile orori irekia  
egongo da hitzordua. Jaien  
antolakuntzari lotutako era-  
baki guztiak bilgune honetan  
hartzen dira; berriz finkatzen  
dituzte jai egunak zeintzuk  
izango diren, egun bakoitze-  
ko egitaraua, aurrekontu eta  
baliabideen lanketa...

### Pagolako maskaradara irteera

Ekainaren 16an Usurbilen  
izango dugun hitzordua gi-  
rotzen hasteko, Orbeldi Dan-  
tza Taldeak otsailaren 17an  
Zuberoako Pagola herrian os-  
patuko den maskarada ikus-  
teko autobus zerbitzua an-  
tolatu du. 8:30etan abiatuko  
da Oiarde Kiroldegitik, eta  
21:30ak aldera izango da itzu-  
lera. Prezioa: 10 euro. Jatekoa  
norberak eraman beharko du.  
Izen ematea otsailaren 8ra  
arte, orbeldi.udt@gmail.com  
helbidean edo ostegunetan  
19:00-21:00 artean Oiarde Ki-  
roldegiko dantza gelan.

# Adostasunaren aldeko mobilizazio handia deitu du GuraSOsek otsailaren 23rako Donostian

**M**obilizazio handi bat iragarri zuen GuraSOsek urtarrilaren 26an, Donostiako Paseo Berriko Oteizaren eskultura parean deitua zuen agerraldian. Otsailaren 23an manifestazio handi bat iragarri du Gipuzkoako hiriburuan. 17:00etan Antiguako tuneletik abiatuko da, “Esan baietz adostasunari” aldarripean. “Hondakinen kudeaketa eredu baina askoz gehiago dugu jokoan otsailaren 23an. Gizarte eredu baina askoz gehiago dugu jokoan, demokraziaren kalitatea, duintasuna eta gizarte bezala dugun etorkizuna. Horregatik denok esan baietz XXI. mendeko Gipuzkoako demokraziari”.

Gizarteko sektore guztiak, gipuzkoar guztiak deitu dituzte manifestaziora. Herritarra erdigunean jarri, eta kezkatzen duten gaien bueltan, benetako informazioa helarazi, hitza hartu, benetako parte hartzea bultzatu, eta elkarrizketaren bidetik adostasunera heltzea eskatuko da; hitz gutxitan, demokrazia osasuntsuagoa izatea aldarrikatuko dute gipuzkoarrek, otsailaren 23an Donostian.

## “Dagokigun duintasuna aintzakotzat har dezatela”

Gipuzkoako Foru Aldundiari, Batzar Nagusiei eta eragile politiko guztiei hainbat eskaera luzatzen dizkie GuraSOsek. Gizartea ez dezatela erabili ezta baztertu ere. Parte hartze nahiz erabakitze eskubidea nahi dutenean bakarrik ez dezatela erabili. “Gizarteari eta herritarroi begirunea, errespetua izateko, dagokigun duintasuna aintzakotzat hartzeko”.

Interes guztien ginetik, er-



“Hondakinen kudeaketa eredu baina askoz gehiago dugu jokoan otsailaren 23an. Gizarte eredu baina askoz gehiago dugu jokoan, demokraziaren kalitatea, duintasuna eta gizarte bezala dugun etorkizuna”, GuraSOsek aditzera eman zuenez.

## GURASOS

**“Parte hartze zuzena eta aktiboa izan nahi dugu”.**

**Eta benetan parte hartu ahal izateko, “benetako informazioa eta aukerak jarri behar dira mahai gainean”**

digunean herritarrek jartzea galdegiten diete agintari po-

litikoei. Herritarrekin elkarlanean aritzea. “Erabaki ezazue, gatazka edo elkarrekin adostasun bila ibiltzea”.

## Elkarrizketaren bitartez akordioak lortu

Geroz eta arduratsuagoa, kezkatuagoa ageri den gizarteari “leku bat egin behar diozue” adibide gisara aipatu zituzten hainbat gaien bueltan; ingurumena, etxebizitza, pentsioak, osasuna, heziketa,

berdintasuna... “Gai hauen guztien aurrean gure lekua izan nahi dugu, gure kezka azaldu eta elkarrizketaren bitartez akordioak lortu”, adierazi zuen GuraSOseko lehendakari Joxe Mari Izetak.

Gizarteari eragiten dioten gaietan “parte hartze zuzena eta aktiboa izan nahi dugu”. Eta benetan parte hartu ahal izateko, “benetako informazioa eta aukerak jarri behar dira mahai gainean”.

## Bilera Batzar Nagusietako lehendakariarekin

Otsailaren 23ko manifestazioaren berri emateko agerraldi berean, beste iragarpen bat egin zuen GuraSOsek. Astelehen honetan (urtarrilak 28) Gipuzkoako Batzar Nagusie-

tako lehendakariarekin biltze-koak ziren.

## Bostekoa emateko prest

“Hor gure proposamena argi eta garbi azalduko diogu. Apro-

betxatu esateko Markel Olano jaunari, eskua erabili daitekeela pultsoa botatzeko gizarteari edo eskua erabili daitekeela baita ere bostekoa emateko gizarteari eta jendarteari”.



# “Esan baietz adostasunari!” manifesturako atxikimenduak biltzeko kanpaina

GuraSOsek otsailaren 23rako iragarritako mobilizazio handiko leloa baliatuz, hitzordu horri begirako “Esan baietz adostasunari!” manifestua ezagutzera eman du. Manifestu honen bidez, ahalik eta sektore gehien eta anitzenen atxikimenduak biltzeko kanpaina abiatu dute. Kanpainak keinu argi bat sinbolizatzen du; eskuko behatz lodia altxatzen dugunean adierazten dugun adostasunarena.

“Esan baietz adostasunari” kanpainak mezu baikorra, sendoa” helarazi nahi du. Adostasunarekin eta Gipuzkoako demokraziaren kalitatea hobetzeko nahiz Gipuzkoa gatazkatsetatik Gipuzkoa eraikitzaile, baikor eta kolaboratibora igarotzeko guztion inplikazioarekin identifikatuko den mezua izan nahi du.

## Argazkiak bidaltzeko deia

Adostasunaren keinu hori egitera animatzen gaitu GuraSOsek datorren hilabete honetan zehar. Urtarrilaren 26ko agerraldian parte hartu zuten Gipuzkoako sektore ezberdinetako ordezkariak manifestu hau hezkuntza, osasuna, ekonomia, kultura, kirola, ekologia, eta oro har, gizarte eragileen artean zabaltzeko konpromisoa erdietsi dute. Gizarteak oro har kanpaina honetan parte hartzeko aukera ere izango du. Lantokietan, familian, lagun artean bildu, banakako nahiz taldeko argazkiak atera eta GuraSOsen web orrialdera helaraztea proposatu dute. Bil dutako atxikimendu guztiokina erraldoi bat osatuko dute gero, manifestazio handia iragartzeko.



Manifestu baten bidez, ahalik eta sektore gehien eta anitzenen atxikimenduak biltzeko kanpaina abiatu dute.

## ATXIKIMENDU-ARGAZKIAK

**“Bil dutako atxikimendu guztiokina mosaiko erraldoi bat osatuko dute gero, manifestazio handia iragartzeko”**

## Elkarlanerako deia agintariei

3 puntu nagusi biltzen ditu manifestuak; batetik, aipatu

moduan, otsailaren 23ko manifestazioarekin bat egin eta bertan parte hartzea galdegiten da. Bestetik, 2018an zehar GuraSOsek abian izan duen Hitzartu prozesuaren baitan osaturiko Berme Batzordeak eskatutakoa babestea; Ahal-dun Nagusia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea Hitzartuko ordezkariarekin bil daitezela alegia, aipatu proze-

suko emaitzak aztertu eta adostasun sozial zabalean oinarrituriko hondakinen kudeaketa osasuntsu eta jasangarrirantz elkarlanerako bideak zabaltzeko batera. Eta horretarako, erraustegia sustatzen duen Foru Aldundiaren Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren martxoaren 6ko eztabaida eta onarpena geldiaraztea galdegiten du manifestuak.

## Erraustegia minbiziarekin estuki lotzen duen ikerlan berria

Asteroko hitzorduari hutsik egin gabe, ikerketa berri baten datuak plazaratu ditu Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak sare sozialen bidez. Aste honetan, Italiako azterlan bat dakarkigute, hondakinen errausketa minbiziarekin estuki lotzen duen datu

kezkarriekin:

“Azterketa honetan diote gizona pleurako minbiziarekin heriotzak hirukoiztu egiten direla eta maskuriko minbizi kasuak %76 gehitzen direla. Halaber, gizona pleurako minbiziarekin intzidentzia %200 handitzen da

eta emakumezkoetan bularreko minbiziaren intzidentzia %15 handitzen da”.

Iturria: “Ranzi A, 2011 ITA-LIA Mortality and morbidity among people living close to incinerators: a cohort study based on dispersion modeling for exposure assessment”.

# 10 urte bete ditu Kantu Taldeak

Urte berezia abiatu berri du Usurbilgo Kantu Taldeak, Usurbilek kantuzaleen bilgunea sortu zueneko 10. urtemuga ospatuko baitu. Martxorako hitzordu berezia ari dira prestatzen.

Aurretik, hileroko ohitura segida emango diote. Joan den urtarrilaren 26an bezala. Azken larunbatetan egin ohi duten moduan, euskal kantuekin blaitu gintuzten eguerdiko poteo orduan. Eguzkitza auzuneko plazan aurkitu genituen Kantu Taldekoak, giro ederrean, ezinhobeto egiten dakiten horretan, lagun arte giro ederrean abesten.

Asteburuko saioaren ostean, deialdi berezi gehiago badituzte hurrengo asteotarako. Jaione Eskudero zuzenduriko taldea, gogoan izan, astelehenero biltzen da entseguetarako.

## Kantu Taldea, deialdiak Astelehenero

■ 18:00-19:00 Ikastaroko entsegu saioak Agerialdeko musika gelan.



Martxoaren 30ean ospatuko dute taldearen 10. urtemuga.

## Otsailak 4, astelehena

■ 18:00 Kantu Taldeak Gure Pakea Elkartearen Jubilatuta Astearen baitan abestuko du Artzabalgo ekitaldi aretoan, herriko txistulariekin batera.

■ Ondoren, Kantu Taldea, txis-

tulari taldea eta Gure Pakea Elkartekoak eta animatzen den herritar oro, kalez kale kantuan arituko dira.

## Otsailak 23, larunbata

■ 12:30-14:00 Hileroko kan-

tu-jira, Mikel Laboa plazatik.

## Martxoak 30, larunbata

Kantu Taldearen 10. urtemuga festa.

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

## 30. Argia Sariak, aldizkariaren 100. urtemugan

Urtarrilaren 25ean Atxega Jauregian ospatu zen sari banaketa ekitaldiak bi urtemuga batu zituen; batetik ekitaldiaren beraren 30. urtemuga eta Argia aldizkariak aurten bete dituen 100 urteak. Argiakoen ondoko talde argazkian dituzue, 2019ko euskarazko komunikazioaren eremuan sariak izan direnak:

### 2019ko sarituak

Prensa idatzia:

■ Gari Garaialde fotokazeta-



Atxega Jauregian egin zen sari banaketa. Argazkia: Argia.

ria, migrazioaren errealitatea ikusarazteko argitaraturiko lanengatik.

Ikus-entzunezko saria:

■ Askekintza Elkartearen "Gurean" dokumentala.

Irratia:

■ Juan Carlos Etxegoien Juanarena "Xamar" ('Euskara Jendea' irratsaioagatik, Bilbo Hiria irratiari).

Internet:

■ Berria egunkariaren indarkeria matxistaren biktimen mapa.

Sustapen ekintza:

■ Altsasuko Gurasoak.

Merezimenduzko bi sari:

■ Eusko Ikaskuntza.

■ Euskaltzaindia, 100. urteurrenagatik.



# Josune Urkola izango da EAJren hautagaia Usurbilgo alkatetzarako

Josune Urkola izango da Usurbilgo alkatetzarako EAJren hautagaia datozen udal hauteskundeetan. Duela lau urte bezalaxe, Josune Urkolak gidatuko du EAJk osatutako gizon-emakume taldea. “Usurbildarren ongizatearen eta bizi kalitatearen alde lan egiteko helburuarekin” aurkeztuko dira maiatzeko hauteskundeetara.

Hautagai jeltzalea bere udal taldeko bozeramailea da gaur egun, eta Ogasuneko, Hezkuntzako, Euskara, Kultura eta Gazteriako, Parekidetasuneko, Pertsonaleko, Nekazaritza eta Ingurumeneko eta Gizarte Zerbitzuetako udal batzordeetako partaidea. Josune Urkolaren esanetan, lau urte hauetan udal lanetan aritzeak “udalaren funtzionamendua eta usurbildarren benetako beharrak ezagutzeko aukera eman dit”.



Josune Urkola EAJren udal taldeko bozeramailea da gaur egun.

## JOSUNE URKOLA

**“Usurbilgo eragileekin batera datorren urteetara begira herriak izango dituen erronkak kontrastatzen ari gara. Ekarpen horiekin gure gobernu programa osatu eta usurbildarrei aurkeztuko diegu”**

## Babestu dituzten ekimenak

Azken legegaldian egitasmo hauek babestu ditu alderdi jeltzaleak: “gure taldeak beste gaien artean Zumarte Musika Eskolaren proiektua, Gureak eta Elkar enpresak Zapategi eremuan kokatzeko ekintza, instalazio estali bat eraikitzea kirolak zein aisialdirako soinketak egiteko eta Eusko Jaurilaritzak ikastetxe publikoa

eraiki dezan zoru eskaintza planteatu edota babestu ditugu”. Horretaz gain, Erroizpe iturburuko instalazioak berritzea eta bere kudeaketa Añarberen eskura pasatzea, aire kalitatea neurtzeko kabina jartzea eta “usurbildar guztiontzako diren ekintzetan eta jaietan kutsu politikoa alde batera uztea defendatu ditugu”.

## Zerrenda osatzen ari dira

Maiatzeko udal hauteskundeetara begira, Urkolak aurreratu du hautagaien zerrenda osatzen hasiak direla eta honekin batera “Usurbilgo ekonomia zein kultura arloko eta gizarte eragileekin datorren urteetara begira herriak izango dituen erronkak kontrastatzen ari gara. Ekarpen horiekin gure gobernu programa osatu eta usurbildarrei aurkeztuko diegu”, EAJko iturriek aditzera eman dutenez.

## “Dantza”, arrakasta itzela

Arrakasta itzela izan du “Dantza” filmaren emisioak Usurbilen. Azkenean bitan eskaini behar izan genuen urtarilaren 27an Sutegin, sarrerak agortu zitzaizkigulako. NOAUA!k joan den igande arratsaldean eskainitako bi emanaldietan, 200 bat lagunek ikusi ahal izan zuten Telmo Esnalek zuzendu eta Orbeldi Dantza Taldea parte hartzaileen artean zuen filma.

### Sinbologia aberatsa

Urbeltzen sinbologiari buruzko azalpenek eta bere lanetan oinarrituta burura etortzen zitzaizkion irudiak izan dira “Dantza” proiektuaren abia-



Ohorezko gonbidatuak izan genituen igandean Sutegin; Telmo Esnal zuzendaria, Gari Otamendi dantzaria eta Juan Antonio Urbeltz aditua eta koreografoa.

puntua Telmo Esnal zuzendaria zarauztarrantzat. “Sinbologia hori guztia harrapatu eta istorioari forma eman diot”. “Dantza” Esnalentzat, Urbeltz

goraipatzearen sinonimoa da. “50 urte edo badira jada hasi zela euskal dantzak berreskuratzen eta berritzen” bikote lagun Marian Arregirekin batera.

### “Euskaraz dantzatutako filma”

Sinbologia zabala jasotzen duten tokiko dantzen film honek, “euskalduna herri bezala nolakoa zen azaltzen du” Telmoren esanetan. Herria da filmeko protagonista. Eta elkarrizketarik ez dagoen arren, euskaraz ari eta ageri da filmean, dantzak berritu eta zabaltzen hiru hamarkadatik gora daraman dantzari belaunaldi oso bat. “Euskaraz dantzatutako film bat da, euskaldunek egingakoa”, nabarmentzen zuen Gari Otamendik. Horixe bere esanetan, filmean erakutsi ahal izan duten alderdi nabarmena, “dantza tradizionala, gure dantzak bizirik dagoen hizkuntza bat dela”.

# Txirikordatzen hasiak

**G**azteak eta adinekoak elkarlanean jarri dituen prozesu parte hartzailea abiatu zuten urtarrilaren 26an Potxoenean. Astebete lehenago aurkeztu eta etorkizunean Ugartondoko garapen urbanistiko berrian kokatuko den Txirikorda, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren proiektua definitzen hasi ziren joan den larunbatean, egitasmo honek zuzenean inplikarazi dituen bi kolektiboak; aipatu moduan, gazteak eta adinduak.

Udalaren jabegoko 16 bat apartamentu izango ditu alokairura bideratuko den eraikinak, emantzipatzeko zailtasunak dituzten gazteei eta autonomoak diren adinekoei zuzenduak. Etxebizitzaren izaera orokorra definitzen aritu ziren urtarrilaren 26ko saioan.

## Larunbatero, Potxoenean

Bigarren saioa larunbat honetan (otsailak 2), 10:30-12:30 artean Potxoenean. "Biztanleak eta sarrera baldintzak" izango dituzte hizpide. Guztira bost saio aurreikusi dituzte. Gaikako saio bakoitzean, dinamika ezberdinen bidez,



Belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa definitzen hasi ziren joan den larunbatean, Potxoenean.

### XABIER ARREGI

**"Oso garrantzitsua da hemen definitzera goazena ondo finkatzea. Etorkizunari begira bide bat ireki dezakegu"**

herritarrek ekarpenak egin eta erabakiak hartzen joango dira. Erabakiok gero udal talde eta teknikariek berretsiko dituzte.

### "Ilusioarekin hasi dugu txirikordatzen prozesua"

Apirilaren 6ra arte luzatuko den prozesu honetan bidela-

gun izango dituzte etxebizitza komunitario honetako erabil-tzaile potentzialak, egitasmo honen sustatzaile den Usurbilgo Udala, eta prozesua dinamizatuko duen Hiritik At Kooperatibakoak. "Ilusioarekin hasi dugu txirikordatzen prozesua", adierazi du kooperatibak sare sozialen bidez. Udala ere alkatearen esanetan poz-pozik. Abian den prozesuaren garrantzia nabarmendu zien Xabier Arregi alkateak lehen parte hartze saiora hurbildutako herritarrei. "Oso garrantzitsua da hemen definitzera goazena ondo finkatzea. Etorkizunari begira bide bat ireki dezakegu".

## Euskal Herriko Mus Txapelketa, Usurbilgo saioa

Urtarrilaren 25ean Gipuzkoako finalerako sailkapen proba jokatu zen Aginagako Atarialden. Ostiral honetan (otsailak 1) Usurbilgoa ospatuko da, gaueko 22:00etan hasita Aitzaga Elkartearen. 21:30ean ireki-

ko dute izen ematea. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Aginagan eta Usurbilen sailkaturikoen otsailaren 23an Zaldibian ospatuko den Gipuzkoako finalean parte hartuko dute. Euskal Herriko finala berriz

martxoaren 16an Lizarran. Euskal Herriko Mus Federazioak 50.000 euro baino gehiago banatuko ditu saritan. Sariak dirutan, bidaiak nazioartera... Informazio gehiago: ehmus.eus

## Bertso-afaria eta Eskola Txikien Festa antolatzeko bilera Aginagan

Hitzordu bikoitza larunbatean (otsailak 2) Aginagan. Ekainaren 9an ospatuko den Gipuzkoako Eskola Txikien Festa antolatzeko lanei begira, informazio bilera lehenik. Eta segidan, trikipoteoak abiarazi eta erromeriak borobilduko duen bertso-afaria. Astebete barru berriz, kontzertu gaua Aginagako Eliza Zaharrean:

### Otsailak 2, larunbata

18:00 Gipuzkoako Eskola Txikien ekainaren 9ko Aginagako festa antolatzeko informazio bilera irekia Aginagako ludotekan.

Deitzailea: Aginagako San Praixku Guraso Elkarte.

### Bertso-afaria

20:00 Trikipoteoa Arrate tabernatik.

21:00 Bertso-afaria Atarialde Elkartearen, Andoni Egaña, Markel Eizagirre eta Sebastian Lizasorekin. Menua: Perretxiko ezberdinen nahaskia; Bakailoa saltsan; Txuleta "pitillo" piperrekin; Etxeko tarta izozkiarekin.

Sarrerak: Aginagako Arrate tabernan salgai 30 eurotan.

Oharra: sarrera kopuru mugatua (90 lagunentzat).

Ondoren, erromeria: Ostolaza eta Lutxurdio.

Antolatzaileak: Antxomalantxa Herri Elkarte, Eliza Zaharra.

### Otsailak 4, astelehena

Eguraldi ona bada, Santa Agea bezperako kantu eskean irtengo dira Aginagako Eskolakoak arratsalde partean.

### Otsailak 9, larunbata

23:30 Kontzertu gaua Aginagako Eliza Zaharrean: Eraso, Kokein eta Dj Bull goizaldera arte. Sarrerak: 8 eurotan Aginagako Arrate eta Usurbilgo Aitzaga tabernetan.

Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra herri elkargunea.



ETXEKO BEREZITASUNAK: TXULETA PARRILAN, ARKUMEA, TXERRIKUMEA

# OLARRONDO JATETXEAN...



**EGUNEKO MENUA**  
13€ (BEZ barne)

✓ Arrainak eta haragiak  
PARRILLAN!



**ASTEBURUKO MENUA**  
30€ (BEZ barne)

**DEGUSTAZIO MENUA**  
50€ (BEZ barne)



**URTARRILAREN**  
30etik aurrera...  
**RUFINO** sagardo  
berria dastatzeko  
aukera, **TXOTX!**



**Olarrondo Jatetxea**  
5 zenbakia. USURBIL  
erreserbak: ☎ 626 686 036  
[www.olarrondo.com](http://www.olarrondo.com)

# Herri Batzarra

**ehbildu** Usurbil

@EhBilduUsurbil   
@ehbildu\_usurbil   
EhBildu Usurbil   
[ehbildusurbil@gmail.com](mailto:ehbildusurbil@gmail.com)

- 1) Zerrendaburuaren aurkezpena eta berrespena
- 2) Herri-programaren lehen zirriborroaren aurkezpena eta lanketa

otsailak 9  
Potxoenea  
10:00-13:00

Gogoratu hauteskunde prozesuan parte hartzeko izena eman behar dela honako helbidean:  
[elkarrekin.ehbildu.eus/register](http://elkarrekin.ehbildu.eus/register)

# Sutegi antzezle beteranoen oholtza izango da otsailaren 8an

**A**rtista talde bikaina osatu da Gure Pakea Elkartearen altzoan. Jubilazio aktiboaren isla argia da, asteotan, lehenbizi Artzabalena eta gero Sutegin ontzen ari diren antzezlanak. Eta presaketa lanen harira darabilten mugimendua.

Otsailaren 8ko estreinaldi egun handiaren atarian dira jada, Tarsi Martinez, Isi Navarro, Maitere eta Pako Alkorta, Jone Agirrezabala eta Kattalin Arzallus. Seikoteak irri ugari eginaraziko digu astebate barru, hilaren 8an, 17:30ean hasita Sutegiko auditorioan estreinatuko den “Halako batean bagoaz Benidorrera!” antzezlanarekin. Herritik herriarentzat sortutako antzezlanerako sarrra doakoa izango da.

## “Denok herritarrak gara”

Izenburua aipatze hutsarekin, Benidorm eta aiton-amonak, irudikatu dezakezue zer ekarriko diguten Gure Pakea Elkarteko kideok. Gure zain dira dagoeneko, eskuzabalik hartuko gaituzte astebate barru Sutegin. “Jendea etor dadila. Tarte atsegin bat biziko duzue, etorri. Barre egingo duzue go-



Estreinaldi egun handiaren atarian dira jada, Tarsi Martinez, Isi Navarro, Maitere eta Pako Alkorta, Jone Agirrezabala eta Kattalin Arzallus.

## MAITERE ALKORTA

**“Jendea etor dadila.  
Tarte atsegin bat biziko  
duzue, etorri.  
Barre egingo duzue  
gogotik”**

gotik”, adierazi dio NOAUA!ri Maitere Alkortak.

Aurkeztu dizuegu aktore taldea, “denok herritarrak gara” nabarmendu digu Kattalin Arzallusek. “Adineko jendea denak, txorakeria gutxikoa”, Jone Agirrezabalaren esanetan.

Umoretik, gaur egungo aiton amonen bizimodu eta errealitate hurbilduko gaitu, astelehenean (otsailak 4) abiatuko

den Jubilatuz Astearen baitan eskainiko duten antzezlanak. “Bizitzako gorabeherak sartu ditugu”, aurreratu digu Kattalinekin. Erreparatu izenburuari, denbora luzez herritik atera gabe egon ostean azkenean badoazela Benidorrera iragaritzen digu. “Azkenean begiak ireki dituzte”, aurreratu digu Maiterekin.

## Elebitan eskainiko dute antzezlanak

**B**erezitasun bat izango du Ixabel Agirresarobek zuzenduriko antzezlanak; hizkuntza. Elebitan eskainiko dute emanaldia, euskaraz eta gazteleraz. Aktore bakoitza bere ama hizkuntzan mintzatu ahalko da. Natural josi dute istorioa, bi hizkuntzetan. Beharrak bultzatuta egin dute ahalegina. Hasieran antzezleentz

de bat euskaraz sortu nahi zen, bestea erdaraz. Baina ezin izan da. Taldearen jarrera irekiak ahalbidetu du bi hizkuntzen erabilera emanaldi bakar eta berean uztartzea. “Nola denen jarrera irekia izan dugun, lortu digu antzerkia euskaraz hastea, baina pertsonaia batzuk elkarren arteko harremanak gazteleraz dira eta oso erraza da gidoia segitzea. Bakoitzak

bere hizkuntzan dituen trebetasunak baliatu beharrak zeuden”, adierazi digu Ixabel Agirresarobek.

Oholtza gainean kide batzuk lehendik ikusi izan ditugu antzerkigintzan, beste batzuk estreinakoz ariko dira jendaurrean otsailaren 8an. “Paperean sartzea kostatzen da pixka bat, baina ondo pasa behar da eta saiatuko gara”,

dio Isi Navarrok.

Tarsi Martinezek ere herrian estreinako aldia du, baina lehendik aritua da antzerkigintzan. “Hemen ez, Salamancan, emaztearen herrian antzeztu izan dut”. Maitere Alkorta ezaguna dugu zereginotan, oraingoan anaia Pako ere animatu du. “Antzerki munduan ni ere lehen aldiz, ondo”.



# “Aurrera egin nahi dugu antzerki taldearekin”

**S**eikote gisa ere lehen emanaldia izango dute. Aipatu moduan, Gure Pakea Elkartearen baitan osatu da taldea. Antzerkizaletasuna bultzatuko zuen bilgune bat sortu nahi zuten. Kide bila hasi ziren, askorengana jo zuten, baina “denek ezetz. Lotsatu egiten ziren. Hemen gauden kideoi aipatu nien eta eta prest agertu ziren. Halaxe hasi gara”, Kattalinekin azaldu digunez.

Antzezlan hau prestatzeko lehen urratsak Gure Pakea Elkartearen egoitzan bertan, Artzabalen eman zituzten. Baina estreinaldi eguna gerturatu ahala antzezlan eskaini behar zuten eskenatokira lekuz aldatu behar izan zuten, “behar den bezala entseatzeko”. Sutegin, “hobeto kokatzen gara”, Kattalinen esanetan. “Lekua handiagoa da eta gure



Antzezlan hau prestatzeko lehen urratsak Gure Pakea Elkartearen egoitzan bertan, Artzabalen eman zituzten. Otsailaren 8ko emanaldia prestatzeko, Sutegin ari dira entseatzeko azken egunotan.

## KATTALIN ARZALLUS

**Askorengana jo zuten, baina “denek ezetz. Lotsatu egiten ziren. Hemen gauden kideoi aipatu nien eta prest agertu ziren”**

artean mugitzeko egokiagoa. Gainera, antzezlan Sutegin eskaini behar dugunez, hobeto”, Maitereren esanetan. Leku aldaketarekin aldea nabaritu dute, “prestaketa hobeto doa Sutegin”, Jone Agirrezabalaren hitzetan.

Estreinaldiaren bezperatan,

otsailaren 8ko emanaldiaren ostean taldeak segida izango ote duen galdetu diegu. “Aurrera egin nahi dugu, jubilatutxoak hori nahi du”, adierazi dio NOAUA!ri Kattalinekin. “Aurrera hau egingo dugu eta ia nola ateratzen den”, esan digu Maiterek.

## Gure Pakea, Jubilatutxoaren atarian

**D**enetariko ekintzez ondo hornituriko Jubilatutxo Astea antolatuko du Gure Pakea Elkartek otsailaren 4tik 10era, eta segidan bazkideen arteko txapelketak. Hilabete hasiera mugitua izango dute Artzabal aldean.

Aurretik, pentsio eta bizimodu duinak izateko aldarriarekin plazara irtengo dira, Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate Elkartek deituta, hileroko azken ostegunetako elkarretaratzea urtarrilaren 31n.

### Urtarrilak 31, osteguna

19:00 Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Deitzaileak: Gure Pakea, Gure Elkartea eta Arrate Elkartea.

### JUBILATUTXO ASTEA

#### Otsailak 4, astelehena

18:00 Usurbilgo Kantu Taldearen saioa Artzabalgo ganbara handian.

#### Otsailak 5, asteartea

16:00 Hitzaldia Matia Fundazioaren Nerea Galdonaren eskutik.

#### Otsailak 6, asteazkena

Goizean zehar, ibilaldia he-

rriaren barrena. Eguerdian, bazkaria Aginaga Sagardotegian.

#### Otsailak 7, osteguna

16:30 Osakidetzaren eskutik, hitzaldia Artzabalen.

#### Otsailak 8, ostirala

17:30 Gure Pakea Elkarteko kideen eskutik, “Halako batean bagoaz Benidorrera!” antzezlan Sutegin. Sarrera doan.

#### Otsailak 9, larunbata

17:00 Herriko eta inguruko soinu-joleekin arratsalde pasa Sutegin.

#### Otsailak 10, igandea

12:00 Meza nahi dutenentzat. 14:00 Bazkaria Aginaga Sagardotegian.

### BAZKIDEEN ARTEKO TXAPELKETAK

#### Otsailak 12, asteartea

16:30 Karta jokoak Artzabalen.

#### Otsailak 13, asteazkena

16:30 Toka eta igel jokoak Artzabalen.

Oharra: ekintzetarako izen ematea aurrez, Gure Pakea Elkartek Artzabalen duen bulegoan.

Antolatzailea: Gure Pakea.

# 21. Korrika badator! Batzordearen lehen saioa ostiralean

**T**ipi-tapa tipi-tapa... Korrika! Hasi entrenatzen, 21. Korrikari harrera egiteko bi hilabete eskas ditugu eta. Usurbilen prestaketa lanak abiatu dituzte. Korrika Batzordeak lehen bilera irekia deitu du ostiralerako (otsailak 1) 18:30etan Etumeta AEK euskaltegian. Euskararen aldeko martxa girotzen hasteko ekarpenak egitera animatzen dute Uxue Loinazek (Usurbil-Lasarteko Korrikaren arduraduna) eta Rosa Zubeldiak (Etumeta AEK-ko irakaslea). Bilera ireki hau, herritar nahiz eragile orori irekia zuzendua dago.

## NOAUA! Zein dira Korrika Batzordearen egitekoak?

**Uxue Loinaz:** Korrikan parte hartzeko eta laguntzeko hamaika modu daude. Horietako bat da Korrika Batzordeetan egiten dena. Euskal Herrian Korrikarekin batera sortzen diren batzordeak dira. Herrian bertan, herriko elkarte eta eragile desberdinak elkartzen gara. Korrika heldu bitartean, hainbat ekimen, ekitaldi parte hartzaile eta abar sortzen dira. Gero Korrika Kulturala dago; hor sartzen dira euskaraz egi-



Korrika Batzordeak lehen bilera irekia deitu du ostiral honetarako. 18:30ean Etumeta AEK euskaltegian.

### UXUE LOINAZ

**Korrikan parte hartzeko hamaika modu daude. Horietako bat da Korrika Batzordeetan egiten dena. Euskal Herrian Korrikarekin batera sortzen diren batzordeak dira”**

ten diren sorkuntzak, euskararen aldeko kultur ekintzak eta askotariko ekintzak.

**Rosa Zubeldia:** Banaka edo taldeka parte har daiteke, nahi den moduan. Baten batek, Korrika Kultural honetan sartu daitekeen ideia bat baldin badu, proposa dezala.

**Atzera begira jarrita, dene-**

**tariko ekitaldiek izan dute lekua Korrikaren girotze lane-tan, ezta?**

**R. Z.:** Erromeriak egiten dira, umeei ematen zaie txokolatea Korrika Txikia ospatzen dutenean, antzerkiren bat, mus txapelketa, bazkariren bat egiten izan da, erakusketaren bat herriko taldeek antolatuta...

## “Norbanako nahiz talde eragile orori zuzendua dago batzordea”

**NOAUA! Hilabeteotan egin daitekeenaren pista batzuk eman dituzue. Ekarpenak egiteko aukera izango da otsailaren 1eko bileran. Nori dago zuzendua eta zer egin asmo duzue lehen saio honetan?**

**Uxue Loinaz:** Norbanako nahiz talde eragile usurbildar orori zuzendua dago.

Lehenengo batzorde honen helburua litzateke saretzea, lehen hartueman bideratzea, lan taldetxo bat sortzea, eta Korrika sustatzeko, euskararen alde zer egin dezakegun proposatzea. Ideia zaparrada jasotzen badugu, gero zer egin ikusiko da. Ahal den neurrian, euskaltegiak baliabideak jarriko ditu ekintza

horiek egin ahal daitezten.

**Zertan dira Korrika prestatzeko lanak?**

**Rosa Zubeldia:** Hor badira zenbait ekintza bateratuak, toki guztietan egiten direnak; arropa euskaltegi guztietan saltzen dugu, Donostiako Gipuzkoako dendan txandak egiten ditugu, euskaltegirako

Korrikarako materiala baliatzen dugu, Korrika Laguntzailea eta kilometroen salmenta bideratzearekin batera... Baina gero, herri bakoitzean sortzen diren batzordeetatik ekimen ezberdinak bideratzen dira, eta zati hau hurbilagotik, herritik bertatik kudeatzen da.



# “Kilometro osoa har daiteke, baina erdia ere erosi daiteke eta taldean”

**NOAUA!** Ibilbideko kilometroen salmenta. Usurbilen tradizionalki herri eragileek erosi izan dituzte nagusiki. Eskae-rak bideratzen hasiak zarete? **Uxue Loinaz:** Batzuk jada kilometroa gordetzeko eskatu digute. Kilometroak bere prezioa du baina leku askotan egiten den bezala, ez dago zertan osoa hartu beharrik, erdia hartu daiteke eta taldean. Malgutasun osoz bideratzen da gai hau. Korrika laguntzeko beste modu bat delako, ekarpen hau egin nahi duen oro ongi etorria izango da.



“Jendeak oso harrera ona egiten dio beti Korrikari”.

**Abestia, bideoklipa, leloa, omendua... ezagutzera eman dira. Duela gutxi, baita ibilbidea ere. Herri barruko ibilbidea ohikoa izango da?**

**Rosa Zubeldia:** Ez da asko aldatuko. Asmoa beti izaten da Korrikak ahalik eta auzo zein herritar gehienengana hurbiltzea. Aginagatik etorriko da, Kaxkoan sartuko da, Bordatxoko errotondara joango da, gero Kalezarrera igo eta handik Kale Nagusira, Bizkarretik Santuenera, eta Santuenetik Zubietara. Hipodromoko zubian Lasartekoei pasako diegu lekukoa.

**Bizi izan dugun Euskaraldiak zapore gozodun lekukoa utziko zion Korrikari?**

**R. Z.:** Euskaraldiak arrasto gozoa utzi duela sumatu dut baina ez Korrikarekin lotuta, geroa begira baizik.

**U. L.:** Beste zenbait herritan ordura arte euskarara gerturatu ez den hainbat jendarteetan, Euskaraldiak euskararen aldeko beste ekimen guztietan parte hartze aktiboagoa izatea bultzatu du.

**Euskaltegiko ikasleek nola bizi dute Korrika urtea?**

## ROSA ZUBELDIA

**“Aginagatik etorriko da, Kaxkoan sartuko da, Bordatxoko errotondara joango da, gero Kalezarrera igo eta handik Kale Nagusira, Bizkarretik Santuenera, eta Santuenetik Zubietara. Hipodromoko zubian Lasartekoei pasako diegu lekukoa”**

**R. Z.:** Korrika igarotzen den une hori oso berezia da, lekukoa hartzen dute. Euskaltegian gure Korrikari buruzko azalpenak jasotzen dituzte, eta presentzia handia ematen die baita Korrikan asko inplikatzeko den ikastolak. Umeen ehuneko handi batek bertan hartzen ditu eskolak eta unitate didaktikoak, kantar, mozorroak lantzen dituzte. Horrek umeei eta euskaltegiko ikasle ere badien gurasoei eragiten die.

**20 edizioen ostean, nola ikusten duzue Korrika?**

**R. Z.:** Hemen inguruan oso oso jendetsua izaten da. Oso laburra. Zain denbora luze egoten gara eta di-da batean pasatzen

da. Hemengo jendeak gainera badu Erriberara nahiz Iparraldera Korrikan parte hartzera joateko ohitura.

**U. L.:** Ikasturtea hastean jendeak bere agendetan sartzen du Korrika egokitzen dela. Herrian egiten diren hainbat ekintzetan aurreikusten da Korrika badatorrela eta horrek asko laguntzen du Korrikako lana eta halako harrera izateak.

**Nola bizi da eta zer ikusten da Korrika igarotzean, lasterketa animatzen doan furgonetatik?**

**U. L.:** Jendetza ikusten da, olatu erraldoia etorriko balitz bezala, urduritasun eta emozio handia. Duela bi urte Lasarten furgonetan joatea egokitu zitzaidan. Eguraldi oso txarra zegoen, baina jendea, ilusioa, urduritasuna, poza nabari ziren. Korrikalarien aurretik zoaz, atzetik dator lekukoa eta zain dagoen jendea ikusten duzu, ezinegona, ilusio handia. Barruak mugitzen dizkigu denoi.

**R. Z.:** Aurreko edizioan, oso eguraldi txarra egin zuen, ilunabar gauean izan zen eta halere jende askok hartu zuen parte. Jendeak oso harrera ona egiten dio Korrikari.



## Datozen deialdiak

■ Otsailak 1, 18:30 Korrika Batzordearen lehen bilera irekia herritar nahiz eragileentzat, Etumeta AEK euskaltegian.

■ Otsailak 9, arratsalde, Txillardegiri omenaldi ekitaldia Donostiako Musike-nen.

■ Otsailak 13, Euskal Herri mailako Korrika Kulturalaren egitarauaren aurkezpena.

■ Apirilak 12: 14:30-15:30 21. Korrika Aginagako Mapiletik, Usurbila, Usurbildik Zubietako hipodromoko zubira. 11 kilometro gutzira.

## Etumeta AEK euskaltegian abian diren ekimenak:

■ Korrika Laguntzailea kanpaina: 12 euroren truke, pina, beherapenak Euskal Herriko hainbat saltokietan eta beherapenentzako katalogoa.

■ Kilometroen erosteta: ibilbideko kilometro osoa edo erdia erosteko aukera.

■ Korrika materialaren salmenta.

## Informazio gehiago:

Nagusia, 43  
607 609 379  
usurbil@ae.eus  
ae.eus  
muntteri.blogspot.com.es  
korrika.eus

# Jontxuren omeneko festa handia

**5** urte Jon Uribe gure artetik joan zenetik, baina herria ez da berataz ahaztu, ezta gutxiagorik ere. Larunbaterako Jontxu oroitzeke egun pasa antolatu du Kalezarko Jai Batzordeak Haraneko aparkalekuan. Goizean herri kirolak, bertso-bazkaria eguerdian Saizar Sagardotegian eta borobiltzeko kontzertu gaua.

Uriberekin hartueman estua izan zuten herriko hainbat musika taldeek joko dute. Taldeen zerrenda egunotan zehaztu dute, segidan duzue. Kontzertuak ospatzen ari diren artean, bokatak jarriko dituzte salgai. Ez ahaztu bestalde, aurrez eskuratu beharko direla, bertso-bazkaritarako txartelak:

## Jontxuren omenez

### Otsailak 2, larunbata

■ 12:30 Herri kirolak: Inaxio Perurena harri jasotzailea eta



**Mendeku Itxua (argazkian), Rukula, Desegin, Izeberg, Eskean Kristo, Hotzikara eta Odolaren Mintzoa taldeak arituko dira Haraneko aparkalekuan.**

Jokin Alkizaletxe zein Axier Pellejero aizkolariak.

■ 14:00 Bertso-bazkaria Saizar Sagardotegian. Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi eta Eli Pagola.

■ Bazkarirako txartelak Bordatxo eta Aitzaga tabernetan salgai, 35 eurotan.

■ 19:00 Kontzertuak: Rukula, Mendeku Itxua, Desegin, Izeberg, Eskean Kristo, Hotzikara,

Odolaren Mintzoa.

■ Afalorduan, ogitartekoak.

■ Oharra: ahal den neurrian ez bertaratu kotxez.

■ Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.

## “Meirasko 19ak”, Tadamunen hitzaldia

Galizara eramango gaitu Tadamun elkargune internazionalistak ostiral honetarako (otsailak 1) 18:00etan Potxoen antolatu duen “Meirasko 19ak” solasaldiak.

“Demokrazia, askatasuna, justizia eta duintasuna defendatzea eskubide bat izateaz gain, betebeharrak bada. Eta hori da hain zuzen, pasa den 2017ko abuztuaren 30ean pertsona talde batek egin zuena. Galizar demokratik, ezker abertzaleko militanteak, sindikalistak, ekintzaile sozialak, kulturalak, me-

moriarren arloko pertsonak. Ekintza baketsu eta sinbolikoa izan zen pertsona hauek burutu zutena. Meirasko pazoan bi pankarta zabaldu zituzten botere publikoen eskuartzea eskatzeko helburuarekin eta, Francisco Franco diktadorearen estatu kolpe faxistak lapurtutako ondarea Galizako herriari itzultzea eskatzeko”.

### Sarrera, doan

Xehetasun gehiago ostiralean erdaraz egingo den solasaldian. Sarrera doan.



**“2017ko abuztuaren 30ean Meirasko pazoan bi pankarta zabaldu zituzten botere publikoen eskuartzea eskatzeko helburuarekin”.**



# Hitzarmenen negoziazioa baimentzea eskatu diete autobus gidariek Foru Aldundiari

Eguneroko lan jardunean etenaldia egin zuten urtarrilaren 23an, Buruntzaldean zerbitzua eskaintzen duten hiru autobus enpresetako hainbat gidarik. Protesta ekintza burutu zuten, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza atarian, Donostiako Gipuzkoako plazan.

Hitzorduek, Garayar, HASA eta TSST enpresetako langileak batu zituen, baita LAB eta UGT sindikatuetakordezkarriak ere. Gipuzkoako Foru Aldundiak, zerbitzu publiko berria erabat esleitua izan arte, Buruntzaldean autobus zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei bere hitzarmenak negoziatu ahal izatea ez dietela baimentzen salatu zuten. Eta hori, hitzarmenok negoziatzen uztea galdegin zuten, bestela, hala egiten ez badute, hiru enpresotako langileek haien eskubideak aldarrikatzeko mobilizazioei ekingo dietela.

## Atzerapena, langile eta erabiltzaileen kaltetan

Hitzarmenak negoziatzen ez uzteak eragin nabarmena du enpresa hauetan; bi urte darमतate enpresetako hitzarmenak negoziatzeko arazoekin. LAB eta UGT sindikatuen esanetan, "enpresek argudiatzen dutena da etorkizuneko emakida arautzen duten pliegoetan oinarri bezala amaituta dauden hitzarmenak kontuan hartzen



Buruntzaldean autobus zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei bere hitzarmenak negoziatu ahal izatea ez dietela baimentzen salatu zuten.

## AUTOBUS GIDARIAK

**"Langileak enpresa berri batera subrogatzen baldin badira, enpresa berriak langileei beren hitzarmenetan jasotako eskubideak errespetatzeko betebeharrak dauka, baina eskubide horiek ez datoz bat lehiaketa publikoak jasotako lan baldintzekin"**

direnez, hobekuntza ekonomiko nahiz sozialak jasotzen dituen hitzarmen berri bat negoziatzea, enpresen aldetik asmo txarreko ekintzatzat jo dezakeela Diputazioak".

Kezka agertu zuten LAB eta UGT sindikatuak, Gipuzkoako Foru Aldundian autobus zerbitzuen gaineko aurreproiektua onartu zenetik urteak pasa daitezkeelako zerbitzua eraberritu arte. Eta urteak igaro

arren, "lizitazio hau martxan jartzeko 2017. urteko soldatak eta baldintzak hartzen baitira kontuan". Tarte horretan enpresek ez dituzte hitzarmenak negoziatu nahi. Eta hau onartezintzat jotzen dute aipatu langile eta sindikatuak. "Ezin zaie eskatu inola ere langileei hobekuntza ekonomiko nahiz sozialei uko egitea esleipena aurrera eramanean arte, ez baitakigu noiz gertatuko den hori".

Eta gertatzen denean, arazo berri baten aurrean aurkitu daitezke langileok. "Langileak enpresa berri batera subrogatzen baldin badira, enpresa berriak langileei beren hitzarmenetan jasotako eskubideak errespetatzeko betebeharrak dauka, baina eskubide horiek ez datoz bat lehiaketa publikoak jasotako lan baldintzekin, eta horregatik Diputazioaren baimena behar dute negoziatu ahal izateko".

## Kalitatezko zerbitzua bermatzeko eskaera

Buruntzaldeko garraio zerbitzu publikoa esleitzeko emakida berria atzeratzeak arduratzeko moduko ondorioak dakartza, "honek suposatzen baitu langileek ezin dituztela beraien enpresetako hitzarmenak negoziatu eta autobusak hondatuak egotea, hauek ez baitira aldatzen, erabiltzaileengan eragozpenak eta kalteak eraginez".

## Kalitatea, langileentzat nahiz erabiltzaileentzat

Atzerapen honek autobus zerbitzuetako langile eta erabiltzaileak ezin dituztela eragin nabarmentzen dute. Eta langileon eskaria honenbestez, argia da; emakida berria martxan egon ez arren, Foru Aldundiak har ditzala dagozkion erantzunkizunak bere gain eta "kalitatezko zerbitzu publiko bat berma dezala langile nahiz erabiltzaileentzat". Baimendu diezaiela enpresei beren hitzarmenak negoziatzea "eta autobusei dagokienez, presazko neurriak hartzeko bidaiarien erosotasuna eta zirkulazioan segurtasuna bermatzeko".

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

**Patxi**  
Patxi  
bazkariak EGUNERO  
afariak. asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

**ZENDOIA**  
**ENE** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

## “Ia Xua 3. urtebetetzea hemen, bere gurasoekin ospatzeko moduan den”

Hurrek maitasun osoz sortutako marrazki zein mezu politekin, Xomorrok botatako bertsoarekin, tartagileek eginiko tarta gozoen bueltan “Zorionak zuri” abestuz eta piztutako kandelak idatziz ospatu zuten Xuaren Usurbilgo lagunek urtarrilaren 25ean frontoian, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga presoen alabak urtarrilaren 19an bete zuen bigarren urtemuga.

Bigarren urtebetetzea ere espetxean dela bizi behar izan du, oraindik indarrean segitzen duen salbuespenezko espetze politikaren eraginez, gugandik 600 kilometrorra, Valentziako Picassenteko espetxean. “Xuari gure zorionak helarazi nahi dizkiogu bere bigarren urtean, urtarrilaren 19an bete baitzuen”, Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik, aurreko ostiral iluntzean frontoian eginiko elkarretaratze berezian gogorarazi zuten.

Urtebete barru, 2020ko urtarrilaren 19an 3 urte betetzean, aldaketarik ez bada, Xuak Picassenteko espetzea utzi eta gurasoengandik urrundu beharko du. Usurbilen biziko da bere amona eta Olatzen ama Mari Karmen Anzarekin. “Ia 3. urtebetetzea hemen, bere gurasoekin, ospatzeko moduan den. Hori izango litzateke oparirik onena beraientzat eta guretzat ere bai”, adierazi zuten frontoian egindako mobilizazio berezian. Bai hitzez,



Urtebete barru, 2020ko urtarrilaren 19an 3 urte betetzean, aldaketarik ez bada, Xuak Picassenteko espetzea utzi eta gurasoengandik urrundu beharko du.

### USURBILN NAHI DITUGU

**“Xuak, Olatzek eta Patxik jada bere etxean beharko lukete aspaldi”**

baita mezu bera biltzen zuten globoen bidez ere.

Pasa den eguberrietan Xua Usurbilen izan zen. Laster bueltan izango da berriz, urtebete barru biziko duen errealitate berrira moldatzen joan dadin. “Gabonetan izan genuen lehen aldiz gure artean eta batzuek ezagutzeko aukera izan zenuten. Laster ekarriko dute berriro herrira, bere herrira, pixkanaka ezagutzen eta egokitzen joan dadin”, iragarri zuten Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak.

### Usurbilen behar zuten

Xuak, Olatzek eta Patxik jada

Usurbilen behar zuten, “bere etxean beharko lukete aspaldi”. Patxik eta Olatzek espetze zigorraren hiru laurdenak besteak dituzte eta ohiko legedia aplikatuta, baldintzapean aske behar lukete, Xuarekin batera Usurbilen. Baina bistan denez, bestelakoa da errealitatea.

“Dakizuen bezala, Picassenteko espetxean daude hirurak, Usurbildik 600 kilometrotara. Euskal preso gehienak bezala, urrunduak, horrek, beraiei ez ezik, beren familiei eragiten dieten kalte guztiarekin”, ohar-tarazi zuten ostiraleko mobilizazio berezian, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak.

Xua, Patxi, Olatz etxeratze borrokan segi beharko dela azpimarratu zuten. “Espetze politikan azken hilabeteetan entzuten eta erdi agintzen ari diren aldaketak, ordea, ez dira gauzatzen. Horregatik segitu beharko dugu borrokatzen”.

### Xabi eta Raimundo gogoan

Xuaren bigarren urtebetetzea ospatzeko mobilizazio berezia, astebeteko tartean zendu diren Usurbilgo gaztaintzile talde solidarioko bi kideak-Xabier Iribar Amigorena eta Raimundo Lizarreta Gorriti-oroitzeko baliatu zuten Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak. Urte luzez gaztainak erre eta salduz, taldeak preso usurbildarren eta senideak laguntzeko erakutsitako elkartasuna eskertzeko.

“Bilkura hau aprobetxatu nahi dugu gure besarkadarririk goxoena bidaltzeko Xabi eta Raimundoren senide eta lagunei. Izan ere, urteetan bere lagun taldearekin preso usurbildarren eta beren familiei erakutsitako elkartasuna ez dugu, ez, ahaztuko. Milesker bihotz bihotzez zuen laguntasunarengatik. Herriko hainbat talde eta pertsonak, izan gaztainak erretzen, ta-loak egiten, tartak egiten, musika jotzen, abesten, bidaietara laguntzen, sostengu ekonomikoa ekartzen, edota orain bezala mobilizazioetan parte hartzen egiten diguten ekarpena aitortu ez ezik gorraipatu ere egin nahi dugu. Eskerrik asko guztioi!”.

### Hurbilgoren eskertza

Xabier Iribarri adierazi bezala, Raimundo Lizarreta oroitu nahi izan du baita Hurbilago Usurbilgo Merkataria eta Ostalarien elkarteak. “Gaztaintzile taldeko bigarren herritar batek ere agur esan digu. Herria girotzeko elkarlanean egindako lanarengatik, Raimundo, eskerrik asko”.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu nol.78 USURBIL

URDAINTZI S.L.  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

Uraitz, s.l.  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL



# Parte hartze marka guztiak hautsi ditu Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probak

**H**aizea, euria, hotza... Giro hau igande goizez izateko, gehienek etxean egoteko egun aproposa izango zuten. Baina giro hau da hain zuzen beste askok nahiago izaten dutena kalera irten eta duten zaletasunaz gozatzeko. Horregatik, egun eta ordu ezin egokiagoan heldu zen urtarilaren 27ko negu giroa.

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako izena eman da zeuden ehunka kirolarik, euria, haizea eta hotza zuten bidelagun, 8:30ak jota, abiapuntuan, Mikel Laboa plazan elkatzen hasi zirenean. Egoki prestatuta heldu ziren, gustuko duten negu giroaz gozatzera.

Ia 600 lagunek eman dute izena aurtengo ediziorako. Inskripzio kanpainak izandako arrakastak islada argia izan zuen urtarileko igande goiza izateko, urtarilaren 27an ezo-



“Eguna bikain joan zen”, antolatzaileek aditzera eman digutenez.

hiko itxura zuen frontoi atzealdean, Andatzako buelta osatzeko proba herrikoia hasi aurretik atera genuen ondoko argazkian ikus dezakezuen moduan.

## Eskertza

8. edizioak marka guztiak hautsi ditu. “550 lagun inguruk hartu zuten parte, inoizko parte hartzerik handiena. Eta ziur gaude datorren urtean gehiago izango direla!”, adierazi dute antolatzaileek. Balantze ezin gozoagoa egin dute aurtengo

edizioaz. “Eguna bikain joan zen eta ibilbidean izan zen lokatz ugariak parte hartzaileak ongi nekarazi zituen. Baina orokorrean denek oso pozik bukatu zuten ibilbidea, amaieran hamaiketako eder batekin eta hainbat opariren zozketa-ekin”, adierazi dute. Antolatzaileek 2019ko proba herrikoia ospatzea ahalbidetu duten guztiak eskertu nahi dituzte. Hitzorduko argazki eta bideoak ikusgai dituzue jada, Facebookeko “IrisasiBtt2013” orrialdean.

## Otsailerako bi mendi irteera

Andatza M.K.K.-k zuzendaritza talde berria du. Gogotik heldu dio jardunari. Baten faltan bi txango antolatu dituzte otsailerako.

### Otsailak 10, igandea:

- Usurbil-Ernio-Alkiza ibilaldia.
- Abiatzeko hitzordua: 8:00, Oiardo Kiroldegia.
- Itzulera: 17:00ak aldera Usurbilen.
- Ibilbidea: 22-25 kilometro.
- Bazkaria: bakoitzak berea eramanda, Zelatunen.

■ Izen emateko epea: otsailaren 5era arte.

■ Prezioa: 7 euro (bidaia eta postrea).

### Otsailak 16, larunbata:

- Euskal Herriko mendiak ezagutzen, Erlo-Xoxote.
- Abiatzeko hitzordua: 7:45, Oiardo Kiroldegia.
- Itzulera: 13:30ak aldera itzulera Usurbila.
- Izen emateko epea: otsailaren 12ra arte.
- Prezioa: 7 euro (bidaia eta ha-

maiketako).

Irteerarako izen ematea emailez egin: andatzamkk@gmail.com

Irteerarako ordainketak kontu zenbakion bidez egin beharko dira:

Rural Kutxa: 30080259163005430321  
Kutxabank: 209550690710 68489805.

Oharra: irteera hauetan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da federatua egotea.

Informazio gehiago: andatza.com  
Antolatzailea: Andatza M.K.K.

## Futbol partidak Haranen

### Otsailak 2, larunbata

- 09:00 Infantil neskak: Usurbil F.T.-Amara Berri
- 10:00 Infantil mutilak B: Udarregi Usurbil FT B-Aralar Intxurre KKE
- 11:45 Jubenilak: Usurbil F.T.-Astigarragako Mundarro
- 14:00 Kadete neskek: Usurbil F.T.-Anaitasuna CD

### Otsailak 3, igandea

- 10:00-14:00 Futbol Eskola

## Eskubalo partidak Oiardo kiroldegian

### Otsailak 2, larunbata

#### Eskola Kirola

- 11:30 Infantil mutilak: Udarregi A-Eibar

#### Usurbil K.E.

- 16:00 Senior neskek, Territorial maila: Usurbil K.E.-Corazonistas
- 17:30 Kadete mutilak, Euskal Liga (2. fasea): Usurbil K.E.-Urdaneta A

Oharra: behin behineko ordu-tegiak. Partidaren bat gehiago joka daiteke asteburuan Oiardo Kiroldegian.

## Joko Garbi

### Txapelketa Zubietan

Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketa aurreko astean abiatu zen. Oiartzungo Txost klubeko bi talde eta Zubietako beste hiru ari dira lehian.

Egunotan jokatuko da bigarren jardunaldia Zubietan:

### Urtarrilak 31, osteguna:

- 19:30 Zubietako 2-Txost 2

### Otsailak 2, larunbata:

- 11:00 Zubietako 1-Zubietako 3 Atsedena: Txost 1.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Inaki Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

ARRANDEGIA  
**PELLO**

ORDUTEGI BERRIA:

ASTELEHENETIK-LARUNBATERA  
9:00-13:30  
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA  
17:00-19:30  
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Erdialdean pisua alokatzen da, 2 gela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa. Dena kanpoaldera. Hiru balkoi eta igogailua. 670 070 562.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldia jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m<sup>2</sup> eta garajeak 22m<sup>2</sup>. 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldia, 2 ko-

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

mun, egongela. 11 m<sup>2</sup>- terraza, 8 m<sup>2</sup> trasteleku eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60.

## Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Erdialdean pisua alokatzen da, 2 gela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa. Dena kanpoaldera. Hiru balkoi eta igogailua. Tlf: 670070562

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak.

688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldia, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-letal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 giletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatuzkoa. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekabizki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabizki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alpe-rrorru 3an. 699 306 158

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari lagun-

tzailea behar dira Aratz erretegi-  
gian, info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziokin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehalan lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldez. Urtariletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketean. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil.



## Zorionak Haizea!

Igandean 9 urte bete zenituen.

Muxu pila bat familiaren partez!



## Zorionak Eire!

Muxu handi bat aita, Peru eta amatxoren partez!



## Zorionak Unax!

Ondo pasa zure urtebetetze eguna.

Muxu potxoloak Santueneatik. Otsailaren 4an ezagutu genizun.

## Heriotzak

## María Pilar Ayuso Arroyo

80 urterekin hil zen urtarrilaren 11n Usurbilen



## Raimundo Lizarreta Gorriti

60 urterekin hil zen urtarrilaren 25ean Usurbilen



**OHARRA:** 2018ko otsailaren 8an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: otsailaren 4ean astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus



Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita eritxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertso-

na helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziarekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanean. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziarekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

#### BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik azkarren. Klase partikularak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonés arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

4 gurgildun karro elektrikoak salgai. Scooter markakoa. Egokia elbarrituentzat. Tel. 664 609 596

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Oxelo markako patinetak bat galdut dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Iزارo

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdut. Babilio sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Udarregi Ikastolan klase partikularak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! Telefono zenbakia: 943 36 12 16

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	DYA.....	943 464 622
Haur Eskola.....	943 374 061	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Emergentziak.....	112
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
KZgunea.....	943 023 684	Kutxabank.....	943 361 202
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Popular Español.....	943 370 411
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	BBVA.....	943 377 155
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza.....		Telefonica.....	1004
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Euskaltel.....	900 840 840
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321		

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 31** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 01** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 02** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 03** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Astelehena 04** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 05** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteazkena 06** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

## Urtarrilak 31 - Otsailak 10

**Osteguna 07** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 08** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 09** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 10** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda otsaila

## 01 ostirala

- **Hitzaldia: "Meirasko 19ak".** 18:00etan Potxoenean.
- **Korrika Batzordearen bilera.** 18:30ean Etumeta AEK eskalategian.
- **EH-ko Mus Txapelketako herri mailako saioa.** 22:00etan Aitzaga elkartearen.

## 02 larunbata

- **KalexarROCK Jontxuren omenez.** Ikus 9. orrialdean.
- **Gipuzkoako Eskola Txikien Festa antolatzeko bilera.** 18:00etan Aginagako ludotekan.
- **Bertso-afaria eta erromeria Aginagan.** Antolatzaileak: Antxomalantxa, Eliza Zaharra.

## 03 igandea

- **Haurrentzako zinea: "Ballerina".** 17:00etan Sutegiko auditorioan.
- **Agate Deunaren inguruko kantu-saioa Zubietan.** Goizean baserriz baseri, arratsaldean Zubietako kaxkoan. Antolatzaileak: Zortzietan Bertso Eskola.

## "Ballerina", igandeko euskarazko filma haurrentzat

Bueltan datorkigu Usurbilgo Udalak eta Ziortza Gazte Elkartek haurrentzat negu parterako antolaturiko euskarazko zine zikloa. Igande honetan (otsailak 3), "Ballerina" izeneko filma proiektatu dute 17:00etan hasita Sutegin.

"Felicia neskatila umezurtz bat da, ausarta eta amets bakarrarekin: dantzari bilakatzea. Ametsa egi bihurtzeko bidean bere lagun min den Victorren laguntza izango du. Gazte asmatzaile honekin Feliciak abentura zirrargarriak biziko ditu



17:00etan hasiko da filma. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai Sutegin.

Paris hiriburu magikoan". LH 1, 2 eta 3. mailetako ikasleei zuzenduriko filma ikusteko sarrerak egunean bertan izango dira salgai 3 eurotan.

## Larunbat honetan bertso-afaria Aginagan

Larunbaterako bertso-afaria antolatu dute Antxomalantxa Herri Elkartek eta Eliza Zaharrak Aginagan.

- 20:00 Trikipotea Arrate tabernetatik.
- 21:00 Bertso-afaria Atarialde Elkartearen, Andoni Egaña, Markel Eizagirre eta Sebastian Lizasorekin. Ondoren, erromeria: Ostolaza eta Lutxurdio.
- Sarrerak: Aginagako Arrate tabernan salgai 30 eurotan.
- Oharra: sarrera kopuru mugatua (90 lagunentzat).

## Eskola Txikien Festa antolatzeko bilera

Gipuzkoako Eskola Txikien 32. festa Aginagan egingo da ekainaren 9an. "Guretzat berezia da aurtengo hau. Lanean hasita gaude dagoeneko, talde ezberdinetan banatuta. Denon laguntza behar dugu", San Praixku Guraso Elkartetik aditzera eman dutenez.

Laguntza premian direlako, bilera deitu dute larunbat honetarako: "arratsaldeko 18:00etan Aginagako ludotekan bilera informatibo irekia izango dugu. Animatu parte hartzera".

## Datozenak

### Jai Batzordearen lehen bilera

Usurbilgo 2019ko festak antolatzen hasteko Jai Batzordearen lehen bilera irekia.

- Otsailak 5 asteartea.
- Ordua: 18:00.
- Tokia: Potxoenea.
- Nori zuzendua: festetarako proposamenen bat duen norbanako nahiz eragile orori irekia egongo da hitzordua.
- Deitzailea: Usurbilgo Jai Batzordea.

### Kontzertu gaua Aginagan

Otsailaren 9rako urteko lehen kontzertu gaua antolatu dute Aginagako Eliza Zaharreen. 23:30etan hasita, Eraso, Kokein eta Dj Bull goizaldera arte. Sarrerak 8 eurotan eskuratu ahalko dira alde zuzenetik, Aginagako Arrate eta Usurbilgo Aitzaga tabernetan. Kontzertu egunean bertan ere eskuratu ahalko dira.



Eraso, Kokein eta Dj Bull (irudian) arituko dira.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL

## ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean  
20 URTEKO ESPERIENTZIA  
645417665  
XABIER Usurbil

## ZALDIGAIN

### ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax: 943300045



# URDAIRA

## Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN

## DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarrilaren 18tik maiatzak 6ra  
TXOTX GARAI  
Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani  
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com)

### IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi  
berria 2019, primerako  
sagardoekin  
943.361.229



# ELUTXETA

## SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



943 37 39 95

Kalezar 39, USURBIL [sidreria@sidrassaizar.com](mailto:sidreria@sidrassaizar.com) [www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

# aginaga

## SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIK!  
ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA



### 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!



%100 bertako satarra

### Tel: 943 365 031

Santuenea





# Udarregi

## IKASTOLA

### **Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:**

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua. Konfiantzaren Pedagogia egitasmo pedagogikoa garatzen dugu 3-6 urteko haurren geletan.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- **KiVa Ikastola gara:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean dugu 2017ko urtarriletik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 2. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Hezkuntza Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: Bertan sukaldatutako menuak (adin guztietarako) eskaintzen ditugu, herriko eta inguruko ekoizleen elikagaiak zerbitzatzuz bazkaltiarrentzat. Honela, herriko ekoizleen produktuen kontsumoa sustatzearekin batera, elikadura arduratsu eta osasuntsuaren baloreak indartzen ditugu.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake. ZIRIMARA proiektua.

51 urteko esperientzia Usurbilen.

## **Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)**

## **Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra** (biak barne)

**HAUR HEZKUNTZA:** 3 - 6

**LEHEN HEZKUNTZA:** 6 - 12

**DBH:** 12 - 16



**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea. USURBIL

[www.udarregi.eus](http://www.udarregi.eus)